

IKASLEON IRITZIA DA (DBH34, BATXI12)

- Ikasle abertzaleak manifestazioa prestatu baino lehen greba araudia aldatzeko prozesua martxan zegoen.
 - Egindako pintadak, gauza aldarrikatzeko moduak eta moduak daude. Astero biltzen gara greba araudia aldatzeko.
 - Pintadak ez dira modua
 - Donostiako batek Arizmendiko greba araudia aldarrikatzeko zer?
 - Prozesua moteldu dute ekintzek, bizkortu beharrean.
 - Zein da manifestazioaren helburua? Prozesua bizkortzea?
- Horrelako prozesuek lana daukate.

Pasa den ostiraleko prentsaurrekoaren harira, gu Arizmendiko DBH 3, 4 eta Batxilergoko ikasle ordezkariak, zehazki 17 ikasle garen heinean, honako hau adierazi nahi dugu:

1. Greba araudia aldatzeko prozesuaren hastapenak ez ziren aurreko ikasturtean eman, soilik proposamenak izan ziren. Hori dela eta, aurtengo ikasturte hasieran, urtean zehar landuko genuen plangintza zehaztu zen eta orain dela hiru aste inguru hasi ginen prozesua martxan jartzen. Gainera, argitu beharra dago, ez dela izan ikasle abertzaleek sortutako presioagatik, ikastolan aurreikusita baitzegoen araudia aldatzea.
2. Ikasle abertzaleak eta ordezkariak helburua berdina da, greba araudia aldatzea, gure eskubidea aldarrikatuz. Baina, moduak eta moduak daude hori egiteko. Gainera, ez dugu uste beharrezkoa denik informazio zehatzik eduki gabe, komunikabideetan guri buruzko berriak zabaltzea eta pintadak egitea.
3. Horretaz gain, prozesu hau ez da egun batetik bestera gauzatzen. Kooperatiba bat garen heinean, ez dago bakarrik ikasleon esku, gurasoak eta irakasleak ere hartzen dute parte erabakian. Hala ere, gu izan gara prozesua aurrera eramane duguna.

4. Bestalde, jakin nahi dugu zein den mobilizazio horren helburua, prozesua jada martxan baitago. Argi utzi nahi dugu, astero geratzen saiatzen garela; izan ere, gure helburua ez da prozesua atzeratzea.

5. Aurreko puntuarekin lotuta, Arizmendiko ikasleak ez direnei ez die zuzenean eragiten, beraz ez diogu zentzu asko hartzen deialdi hori nazionala izateari.

ARIZMENDI IKASTOLAKO IKASLE ORDEZKARIAK